Donostia Kirola

Anoeta pasealekua, 18 - Tel. 943481850 - 943481880 - udala_kirolak@donostia.eus - www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

# CURLING TXURI BERRI 2025/26 TALDEARI ZUZENEKO DIRULAGUNTZA EMATEA

CLUB HIELO TXURI BERRI erakundeak 3.000 euroko dirulaguntza eskatu dio Donostiako Kiroletako Udal Patronatuari (aurrerantzean, KUP) 2025/12/03an (erregistro-zenbakia: 202599900056276), 2025/09/01 eta 2026/05/31 bitarte ospatuko den 2025/26 denboraldiko Txuri-Berri Curling taldea: emakumeak eta modalitate mistoen parte-hartzea maila absolutuan proiektuko gastuei aurre egiteko. Eskaera hori 2025/12/03an bertan eta 2026/05/06an zuzendu zen, erregistro-zenbaki hauekin: 202599900056360 eta 202699900022526 hurrenez hurren.

Zuzeneko dirulaguntza da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) artikuluan aurreikusitakoetakoa.

Diru-laguntza hori KUPen Diru-laguntzen 2024-2026 Plan Estrategikoan sartuta dago (55. fitxa) Errendimendu handiko taldeak: Txuri Berriko Curling taldea .

Zerga-betebeharrak (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatu da 2026/05/21eko datarekin.

Adierazi du ez dagoela premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta, Udalarekin edo haren erakundeekin hartutako zorrengatik.

2025eko abenduaren 03an aurkeztu dute Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko adierazpena; hain zuzen ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluak xedatutakoa betetzeko. Erakundeak adierazten du horren arabera ez dagoela behartuta Berdintasun Plana aurkeztera.

Teknikari Ekonomikoak 2026/05/21ean egindako txostenean egiaztatzen da aurreko 2024/25 denboraldiko justifikazioa behar bezala justifikatuta eta ordainduta dagoela.

# CONCESIÓN DE SUBVENCIÓN DIRECTA PARA LA ACTIVIDAD CURLING TXURI BERRI 2025/26

El CLUB HIELO TXURI BERRI ha solicitado una subvención de 3.000 euros al Patronato Municipal de Deportes de Donostia (en adelante, KUP) el día 03/12/2025 (nº de registro: 202599900056276), para hacer frente a los gastos del proyecto Txuri-Berri Curling: participación de mujeres y modalidades mixtas a nivel absoluto, de la temporada 2025/26, a disputar entre el 01/09/2025 y el 31/05/2026. Dicha solicitud ha sido subsanada el mismo día 03/12/2025 y el 06/05/2026 (n.º de registro 202599900056360 y 202699900022526 respectivamente ).

Se trata de una subvención directa de las previstas en el artículo 22.2.a) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (LGS, en adelante).

Esta subvención está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones de KUP 2024-2026 (ficha 55) Equipos de alto rendimiento: sección de Curling de Txuri Berri.

Con fecha 21/05/2026 se comprueba que se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias (Hacienda Foral de Gipuzkoa y Recaudación de Impuestos Municipales) y Seguridad Social.

Ha declarado que no se halla incursa en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento o sus entidades.

En fecha de 03 de diciembre del 2025 ha presentado la declaración sobre igualdad de mujeres y hombres, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres. La entidad declara que en base a ello no está obligada a presentar Plan de Igualdad.

En el informe realizado por el Técnico Económico de 21/05/2026 se informa que la subvención de la temporada anterior 2024/25 está debidamente justificada y liquidada.

10740n XVII

Ebazpen honen datan, ez da inolako ebazpenik eman dirulaguntza itzultzeko, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ebazpen honen egunera arte, ez da eman berau kobratzeko eskubidea galtzeko ebazpenik, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik.

Dirulaguntza ematen duen organoak ez du erabaki onuradunari ordaintzeke dituen zenbatekoak atxikitzea, kautelazko neurri gisa.

Azaldutakoa dela-eta, Kudeatzaileak, KUPen Estatutuetan 17. artikuluko l letran xedatutako eskuduntzei jarraikiz, ondorengoa ebatzi du:

**EBAZPENA**

1.- G20337523 IFZ duen CLUB HIELO TXURI-BERRI erakundeari ondorengoa ematea:

• 3.000 EUROTAKO diru laguntza ekonomikoa, 2025 ekitaldiko aurrekontutik, DLOren 22.2.a) artikuluan aurreikusitako ZUZENEKO laguntza moduan, “**Txuri-Berri Curling Taldea: emakumeak eta modalitate mistoen parte-hartzea maila absolutuan**” 2025/26 denboraldian proiektuaren gastuei aurre egiteko 2025/09/01 eta 2026/05/31 bitartean.

2.- Gastua **1920.211.481.12/2025** partidari egoztea.

3.- Erakunde antolatzailearen eta KUPen arteko hitzarmena sinatzea, diru-laguntza emateko alderdien arteko baldintzak eta konpromisoak jasoko dituena.

4.- Edozein Administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazionalek, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeek xede berarekin ematen dituzten beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin bateratu ahal izango da diru laguntza hau, KUPek berak dituen beste laguntza eta finantzaketa iturriekin izan ezik. Hala ere, DLOren 19.3 artikuluaren arabera, emaniko diru laguntzaren zenbatekoak ez du, inolaz ere, gaindituko, bakarrik nahiz beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin elkarturik,

A la fecha de este resolución, no se ha emitido ninguna resolución que determine el reintegro de la subvención en virtud de lo establecido en el artículo 37 de la Ley General de Subvenciones.

Hasta la fecha de esta resolución, no ha sido dictada resolución de la pérdida del derecho al cobro de la misma por ninguna de las causas previstas en el artículo 37 de la Ley General de Subvenciones.

No se ha acordado por parte del órgano otorgante de la subvención la retención las cantidades pendientes de abonar al beneficiario como medida cautelar.

Por cuanto antecede, la Gerencia, en virtud de las atribuciones que le han sido conferidas en el artículo 17 letra l de los Estatutos del PMD adopta la siguiente

**RESOLUCIÓN**

1.- Conceder al CLUB HIELO TXURI-BERRI con CIF G20337523 lo siguiente:

• Subvención económica máxima de 3.000€, con cargo al presupuesto de 2025, en la modalidad de ayuda DIRECTA prevista en el artículo 22.2.a) de la LGS, **Equipo Txuri-Berri Curling: participación de mujeres y modalidades mixtas a nivel absoluto,** para cubrir los gastos de la temporada 2025/26 a disputar entre el 01/09/2025 y el 31/05/2026**.**

2.- Imputar el gasto a la partida **1920.211.481.12/2025.**

3º Suscribir un Convenio entre la entidad organizadora y el PMD en el que se recogen las condiciones y compromisos entre las partes por las que se otorga la subvención.

4º La presente subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, salvo con las ayudas y/o financiación proveniente del propio PMD. No obstante, conforme al artículo 19.3 LGS, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas,

diruz lagundutako jardueraren kostua..

ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

5. Emandako dirulaguntzaren %70 hitzarmen hau sinatzen den unean ordainduko da, baldin eta aurreko ekitaldiko dirulaguntza justifikatuta eta likidatuta badago. Teknikari ekonomikoak egindako txostena dago, eta justifikazio hori behar bezala egin eta likidatu dela adierazten du. Gainerako %30, dirulaguntzaren justifikazioa onartzen denetik gehienez ere bi hilabeteko epean ordainduko da.

5º El 70% de la subvención concedida se abonará en el momento de la firma del presente convenio siempre que la subvención del ejercicio anterior esté justificada y liquidada. Consta informe de la técnico económico que da cuenta de que dicha justificación está correctamente realizada y liquidada. El 30% restante se abonará en el plazo máximo de dos meses desde la aceptación de la justificación de la subvención.

Pertsona onuradunari ez zaio inolako bermerik eskatuko erakunde onuradunaren izaera zein den ikusirik, eta ez delako ikusten hitzarmen honen arabera bere gain hartutako obligazioak ez betetzeko arriskurik.

No será exigible la prestación de garantía por parte de la persona beneficiaria en atención a la naturaleza de la entidad beneficiaria y por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de este convenio.

6.- Dirulaguntzen justifikazioek, jardueraren jarduketa-memoria bat eta egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomiko bat izango dituzte.

6.- Las justificaciones de las ayudas incluirán un informe de actuación de la actividad y un informe económico justificativo del coste de las actividades realizadas.

7.- Gastuen justifikazioa aurkezteak ez du 4 hilabeteko epea gaindituko, jarduera egiteko edo funtsak aplikatzeko ezarritako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

7.- La presentación de la justificación de los gastos no excederá el plazo de 4 meses, contados a partir de la finalización del plazo establecido para la actividad o la aplicación de los fondos.

8.- Ebazpen hau erakunde antolatzaileari jakinaraztea.

8º Notificar la presente resolución a la entidad organizadora.

Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da organo honetan, hilabeteko epean. Bestela , administrazio-auzietako errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Administrazio Auzietako Epaitegian; horretarako bi hilabeteko epea egongo delarik , ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuak . Guzti hau , Administrazio Prozedura Erkidearen urriak 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8 eta 14. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

La presente Resolución agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante este mismo órgano en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso-administrativo ante el correspondiente Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses , contados a partir del día siguiente al de la fecha de su notificación, todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común y artículos 8 y 14 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Donostian, sinaduraren egunean

San Sebastian, a fecha de la firma

KUDEATZAILEA / GERENTE

David Feijoo Rogel